

Pablo Esquert

Bilboko Museoko *Ecce Homo* eta berari egotzitako beste lan batzuk



Isabel Mateo

**BILBOKO ARTE
EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO**

Testu hau Creative Commons lizentziapean (mota: Aitortu–EzKomertziala-LanEratorririkGabe) argitaratu da (by-nc-nd) 4.0 international. Beraz, berau banatu, kopiatu eta erreproduzitu daiteke (edukian aldaketarik egin gabe), betiere, irakaskuntza edo ikerketarako helburuekin, eta egilea eta jatorria aitortuta. Ezin da merkataritza helburuetarako erabili. Lizentzia honen baldintzak <http://creativecommons.org/licenses/by-ncnd/4.0/legalcode> webgunean kontsultatu daitezke.



Ezin dira irudiak erabili eta erreproduzitu, argazkien eta/edo lanen egile-eskubideen jabeek berriazko baimena eman ezean.

© Testuenak: Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao

Argazki-kredituak

- © Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao: 1. ir.
- © Colección Vicente Lassaia, Valencia: 3. ir.
- © Colegio de Nuestra Señora del Recuerdo, Madrid: 8. ir.
- © Institut Amatller d'Art Hispànic. Arxiu Mas, Barcelona: 4.-6. ir.
- © Museo de Burgos: 9. ir.
- © RMN / Harry Bréjat: 7. ir.
- © Sala del Magistrato dei Conservatori alle Leggi, Palazzo Ducale, Venezia: 2. ir.

Argitalpena:

Buletina = *Boletín* = *Bulletin*. Bilbo : Bilboko Arte Ederren Museoa, 2 zenb., 2007, 65-84 or.

Babeslea:

Caja Duero

1 927. urtean, Laureano de Jado y Ventadesek dohaintzan utzitako zenbait lan sartu ziren Bilboko Arte Eder Museoan. Utzitako lanen artean, *Ecce Homo*a gai nagusi zeukan ohola zegoen (118 x 100,5 cm), eta XVI. mendeko¹ Espainiako Eskolako lana izango balitz bezala jaso zuten inbentarioan. Eszenan, Kristo eta Pilato agertzen dira; Kristo borrhoroaren jazarpenpean dago, herriaren aurrean aurkezten dutenean (1. ir.). Ohola kalitate handikoa zenez, Espainiako eta atzerriko ikertzaile askoren interesa piztu zuen, eta egilea nor izango ote zen zehazteko gutunak idatzi zizkioten elkarri. Zorionez, gutun horiek guztiak museoan daude gordeta².

Gordetako lehen gutunetako bat 1943ko irailaren 30ekoa da, eta Diego Angulo jaunak idatzi zion garai hartan museoko zuzendaria zen Losada jaunari. Bertan, Angulok argi eta garbi adierazten zuen museoan zeuden XVI. mendeko zenbait ohol espainiarren argazkiak jaso nahi zituela eta euren artean, *Santa Agedaren martirioa* eta *Ecce Homo* azaltzen ziren, baina ez zen aipatzen nortzuk ziren bi lanen egile posibleak³. Hurrengo hilabetean, Losada jaunak erantzun zion. Bertan azaltzen zionez, oso zaila zen oholen argazkiak ateratzea eta, *Ecce Homo* lanari zegokionez, Madrileko Linker argazkilariarenera joateko adierazten dio. Hain zuzen ere, argazkilari horrek Jadoren legatuko lan gehienen argazkiak atera zituenez, *Santa Agedaren martirioa* lanarena ere izango zuen seguruenik.

Angulok XVI. mendeko Espainiako margolanen azterketa egin zuen *Ars Hispaniaeko* ale batean, baina hiru urte lehenago, 1951ko otsailaren 22an, R. Ch. Post amerikarrak museora idatzi zuen, informaziorik zuzen eta zehatzena eskatzeko *Santa Agedaren martirioa* lanean agertzen zen sinadurari buruz: PALENCIA (aip.). Izan ere, Gudiolek Bartzelonatik jakinarazi zion margolariaren izena ere irakurtzen zela: GASPAR DE. Postek ez zuen azken argazki hori ikusi eta dedukzioa besterik ez zela pentsatu zuen, Valladolideko agiri batzuetan izen

1 Inb. zenb 69/186. Galilea 1995, 14., 35., 40. or., Gaspar de Palenciari egotzitako irudia. Plasencia 1932, «XVI. mendeko anonimo espainiarra» moduan.

2 Eskerrik asko Bilboko Arte Eder Museoari gutun horiek nire esku uzteagatik. Gutun horiek A. M. Galilea Antónek ere erabili zituen bere doktoretzako tesian.

3 Inolako zalantzarik gabe, XVI. mendeko pinturari eskainitako *Ars Hispaniae* laneko XII. liburukirako materiala biltzen ari zen Angulo, eta lan hori 1954. urtean argitaratu zen.

© Babestutako materiala



1. Pablo Esquert (aktibo 1559 eta 1576 bitartean)

Ecce Homo

XVI. mendearen bigarren zatia

Olioa oholean. 118 x 100,5 cm

Bilboko Arte Eder Museoa

Inb. zenb. 69/186

eta abizen bereko margolaria agertzen zelako. Postek beste galdera batzuk egin zituen *Santa Agedaren martirioa* eta *Ecce Homo* lanei buruz, bi koadroak margolari berarenak zirelakoan. Garai hartako zuzendaria zen Crisanto Lasterrak 1951ko martxoaren 6an erantzun zion, eta Santa Agedaren oholean PALENCIA FE (aip.) abizena baino ez zela agertzen egiaztatu zion eta Gaspar izena inon azaltzen ez zela. Era berean, lana Gregorio de San Pelayo jaunaren dohaintzatik zetorrela; eta *Ecce Homo*, berriz, Laureano Jadoren dohaintzatik.

Postek bi oholak margolari berarenak izan zitezkeela adierazi zuenetik, *Ecce Homo* ohola Valladolideko Gaspar de Palencia margolariarena zela esaten hasi ziren. Izan ere, historialari amerikarraren iritziz, bere estiloa bat zetorren Espainiako manierismoaren estiloarekin, adore handiagoz modelatzen zuelako⁴.

Posten argitalpena azaldu baino lehen, Angulok lerro gutxi batzuk eskaini zizkion Gaspar de Palenciari 1954. urtean egin zuen lanean. Bertan azaltzen zuenez, ordura arte dokumentatutako lanik ez zen aurkitu eta inork ez zekien ziurtasunez artista berak *Santa Agedaren martirioa* sinatzen zuen ala ez. *Ecce Homo*, ordea, aipatu ere ez zuen egiten⁵.

1969ko *Bilboko Arte Eder Museoko Katalogoan*, Crisanto de Lasterrak *Ecce Homo* ohola zehatz-mehatz azaltzen zuen, XVI. mendearen erdialdeko lana zela zioen eta Posten azterlana aipatzen zuen.

1970. urtean, Camón Aznarren ustez, *Santa Agedaren martirioa* margolanean oinarrituta, bazegoen Gaspar de Palenciaren nortasuna berregiterik. Bilboko Museoan *Ecce Homo* bat zegoela aipatzen zuen, eta Moralesekin lotzen zuen. Hala ere, ezin dugu ziurtatu Postek aztertutakoa den edo Extremadurako artistaren beste bat den. Museoak 1918an erosi zuen, eta, Camónek dioenez, ez zen batere erosketa argia izan. Postek aztertutakoa bada, bitxia da Moralesekin lotzea eta Gaspar de Palenciaren lana dela argi eta garbi ez esatea⁶.

1993. urtean, Ana María Galilea Antónek bere doktoretzako tesian bat egin zuen Postek adierazitakoarekin, eta *Ecce Homo* Gaspar de Palenciarena zela adierazi zuen. Oholari buruz egindako azterketan, zehatz-mehatz azaltzen zuen zeintzuk ziren argiaren efektuak eta irudien jantzien kromatismo urdin, gorri eta berde bizia, Kristo estaltzen duen araztasun-oihal zuriaren aldean. Galilea Antónek datu garrantzitsua eskaini zuen, Kristoren eredia eta Aragoiko eskolako beste eredu bat erkatu zituenean Bartzelonako Despujol bilduman. Antza denez, bigarren hori Rolán de Moys margolari flandestarrarena zen, eta Villahermosa dukearen eskutik heldu zen gure herrialdera⁷.

Rolán de Moys ez zen izan Villahermosa dukearekin iritsi zen margolari flandestar bakarra, eurekin batera beste margolari flandestar bat agertu zelako gure pinturan: Pablo Schepers, alegia. Rolán de Moys bezala, Aragoi lan egin zuen, batik bat, eta, sarritan, berarekin lan egin zuen, elkarrekin egindako obretan. Schepers beste izen batzuen bitartez ezagutu zuten gure herrialdean: Pablo Esquert eta Micer Pablo ziren izen horiek.

1993. urtean ere, Miguel Angel González García eta Manuel Ariasek artikulua bikaina argitaratu zuten Gaspar de Palenciaren lan artistikoa berregiteko. Bertan, ordura arte margolariari egozten zitzaizkion margolarik berrikusi zituzten. Bilboko Museoko *Ecce Homo* aipatzean, Valladolideko margolariaren ohola ez zela, espainiarra ez zela eta mundu flandestarretik hurbil zegoela zioten -eta nire ustez, bete -betean asmatu zuten⁸.

Urte horretan bertan, 1993an, Pérez Sánchezek Gaspar de Palenciaren hiru margolari buruz galdetu zuen, eta, antza denez, bazekien Bilboko Museoan zeudela. Ekainaren 21ean, museoak Valladolideko margolaria-

4 Post 1930-1966, XIV. libk. (*The Later Renaissance in Castile*, 1966), 65-66. or., 25. ir.

5 Angulo 1954, 195. or.

6 Camón Aznar 1970, 267. or.; Galilea 1995, 34. or.

7 Galilea 1993, II. libk., 539-541. or.; IV. libk., 215-217. ir.

8 González/Arias 1994, 43. or.; Morte 1999, 450-451. or.

ren lanen artean *Santa Agedaren martirioa* eta *Ecce Homo* baino ez zeudela erantzun zion, Postek margolariarena zela esan zuen eta. Postek Epifaniaren gaia jorratzen zuen beste margolan bat ikusi zuen museoan, eta, beharbada, aldi baterako gordailua baino ez zen izan. Urte askoren ondoren, 2001eko ekainaren 16an, Pérez Sánchezek beste gutun bat idatzi zion museoko zuzendariari. Bertan, *Ecce Homo* lanari buruzko zer-bait aipatzen zion, museoko tailerrean ikusi ostean. Izan ere, bere ustez, antzekotasun handiak zeuden ohol horren eta Zaragozako Pilarren zegoen beste baten artean. Era berean, mihisean egindako kopia zegoen hiri horretako museoan. Bere esanetan, kalitate handikoa zen Bilboko Museoan Gaspar de Palenciarena zela zioten lanean. Hala ere, «kutsu flandestarra» zeukala uste zuen, Gonzálezek eta Ariasek esandakoari eutsita.

Zaragozako *Ecce Homo* bieie buruzko azterlanak ageri-agerian utzi zuen gaia arrakastatsua izan zela, Kristo bakar-bakarrik agertzen zelako, F. Thomasinoren grabatuan azaltzen zen bezala. Badirudi Thomasinok berak zabaldu zuela gaia. Pilarreko *Ecce Homo* Aragoiko lana da, eta 1570. urtean egin zen. Estiloari begira, lotura estua dauka Tafallako Errekoletoen (Nafarroa) komentuko erretaula nagusiarekin. Hain zuzen ere, Pablo Schepers eta Rolán de Moys flandestarrek kontratatu zuten 1571. urtean. Lan horretan, albiste garrantzitsua agertzen da (gero osatuko dugu): Luis de Moralesek «*Ecce Homo*» bat bidali zuen Zaragozara eta Schepers (Jusepe Martínezek bere *Discursos* lanean adierazten duen bezala) «antzeko buru asko egin zituen eta eskuak erantsi zizkien»⁹.

Jusepe Martínez, beraz, Pablo Schepers aztertu zuen margolaria izatera heldu zen, berari buruzko aipamen luzea egin zuelako 1675. urtearen inguruan idatzi zuen *Discursos practicables del nobilísimo Arte de la Pintura* lanean¹⁰. Martínezek adierazten zuen, lehen esan dugun bezala, Schepers Moralesen lana ezagutzen zuela. Hala ere, Villahermosa dukearen ekimenaz, Rolán de Moysekin batera Flandestik Espainiara iritsi zela ere azaltzen zuen, eta Schepers «historien» margolaria zela eta Moys «erretratuen» margolaria zela adierazten zuen. Jusepe Martínezen iritziz, biek Italiako pintura ezagutzen zuten, eta Schepersen teknika «mehea bezain sotila» zen bere jatorri flandestarraren ondorioz. Era berean, oihalak tafetanez egiteko joera zeukan, eta, Covarrubiasek adierazten zuenez, «zeta mehea zen eta soinean mugitzean *tif taf* soina egiten zuen»¹¹. Oihal-kalitate hori, hain zuzen ere, Bilboko *Ecce Homo* lanean Kristo estaltzen duen araztasun-oihalean ageri da, barrurantz sartutako ertzaren parean dauden bandetan tolestuta. Horrez gain, oihala lotzeko modu bereizgarria daukanez, oso lagungarria izango da margolaria nor den zehazteko orduan. Martínezen hitzetan, Schepers alaia, musikazalea eta eskuzabala zen, eta bere nortasuna Rubensenaren antzekoa zen. Bere esanetan, Rolán de Moysek amaitu zituen Schepers kontratatutako lan batzuk, eta, berari buruz hitz egiten duenean, erretratua du hizpide, baina ez ditu sekula aipatzen *Ecce Homo* lana irudikatzen zeukan interesa eta Moralesek sortzen zion miresmena.

Schepersen biografo gehienek Jusepe Martínezen testua errepikatzen dute. Hala ere, batzuek, Palominok, esaterako, beste datu bitxiren bat ematen dute, margolaria ez ezik Schepers Zaragozako Errege Auzitegiko epailea zela adierazten dutelako. Bere ustez, margolari bikaina da, «San Klemente kondearentzako oratorio-rako egindako margolanaren arabera dirudien bezala. Lan hori ospe handikoa da eta estimazio handiz tasatuta dago. Zaragozan bertan hil zen 1659. urtean, hirurogeita hamasei urte zituela»¹². Luzaroan bizi zen, beraz.

9 Zaragoza 1990, 224-225. or.

10 Pablo Schepersi buruz eskaini ahal dituzten albisteengatik kontsultatu daitezkeen beste liburu interesgarri batzuen artean, Hernando de Ávilaren eskuizkribua (desagertua) eta Lázaro Díaz del Vallerena nabarmendu behar dira. Azken hori CSICko Historia Institutuko liburutegian dago, eta ezin izan da inolaz ere kontsultatu, «Erreserba» atalean dagoelako, liburutegia zaharberritzen eta lekualdatzen ari diren bitartean. Jusepe Martínezi dagokionez, Julián Gállegoren edizioa kontsultatu da, 1950, 216-219. or.

11 Sebastián de Covarrubias. *Tesoro de la lengua castellana o española*, 1611 (ed., Madrid : Turner, 1977).

12 Ceán Bermúdez 1800, II. libk., 45. or.; Palomino 1724, 317. or.



2. Quentin Metsys (1465-1530)
Kristoren iseka, XVI. mendearen hasiera
 Olioa oholean. 95 x 74 cm
 Dukearen Jauregia, Venezia. Magistrato alle Leggi-en ganbera



3. Quentin Metsysen kopia
Jesus, Pilatosek herriari aurkeztuta
 Olioa mihisean. 94 x 76 cm
 Vicente Lassaia bilduma, Valentzia

Agirietan ageri den izena Ezchepers da, eta, Angulok haren estiloari buruz zioenez (Jusepe Martíñezek dioskuna kontuan hartuta), ez dirudi italiarren eraginpean zegoenik. Era berean, haren lanak ezagunak ez badira ere eta Martíñezek diskurtsoak Moralesekin lotzen badu ere, nabarmendu egiten du beharbada Tarazonako Sortzez Garbiko *Ecce Homo* lana berak egin zuela¹³.

Fernando Benito Domenechek XVI. mendeko azken laurdenean Aragoira iritsi ziren margolari manierista flandestarren taldean sartzen du Schepers. Agerikoa denez, erabaki horretan eragin handia izan zuen 1581ean hildako Villahermosa dukearen (Martín de Gurrea jauna) mezenasgoak. Artista horien artean, 1576an hildako Pablo Schepersen eta 1592an hildako Rolán de Moysen agerpena azpimarratzen du. Bi margolariak Zaragozan zeuzkan jauregia eta landetxea apaindu zituzten, eta, urteen joan-etorrian, «tokian tokiko ikusmira berri zuten mendearen amaierara arte». Benitok nabarmendutakoaren arabera, 1571. urteaz geroztik euren kontura lan egin zuten, eta tailerra ireki zuten. Gainerako autoreek bezala, Zaragozan ikusitako Moralesen lanetik aurrera Scheperssek margotutako zenbait *Ecce Homori* buruz Jusepe Martíñezek idatzi zuen testua aipatzen du, baina «aldagaiak ditu». Izan ere, Zaragozako Pilarreko basilikako *Ecce Homorekin* eta Nafarroako Museoko beste batekin lotzen du albistea. Benitoren ustez, ohol horien estiloa bat dator margolariak sinatuta eta datatuta utzi zuen lan bakarrarekin: *Pilarreko Andra Maria, Santiagorekin eta jesuita batekin*. Margolan hori 1575. urtean egin zuen, eta Valentziako bilduma pribatu batean dago¹⁴. Gure iritziz, lan honen eta *Ecce Homoen* artean zentzu dramatikoari eta argilunari begira dauden aldeak Moralesen eraginaren eta gaiaren ondorioak dira, inolako zalantzarik gabe.

13 Angulo 1954, 333-334. or.; Camón Aznar 1970, 306. or., berriro jasotzen du Jusepe Martíñezek idatzitako testua.

14 Benito Doménech 1995, 284-285. or.



4. *Ecce Homo*
Nuestra Señora del Pilar basilika, Zaragoza
(Institut Amatller d'Art Hispànic. Arxiu Mas)



5. *Ecce Homo*
Despujol bilduma, Bartzelona
(Institut Amatller d'Art Hispànic. Arxiu Mas)

Beraz, nolakoa da Schepers? Argi eta garbi dago, aurreko flandestarrak (Quentin Metsys) edo flandestar garaikideak (Miguel Coxcie) bezala, Italiara joan ahal izan zen flandestarra zela. Coxciek, gainera, lanak zituen Espainian eta, batez ere, Escorialen. Guzti-guztiek euren teknika eta izaera flandestarrak nahastu zituzten Italiako forma berriekin, eta monumentalagoak, kolore biziagoak ziren. Ezaugarri horiek agerikoak dira Bilboko *Ecce Homo* lanean, eta Gaspar de Palenciaren estilotik oso urrun daude. Hori dela eta, Bilboko ohola Schepersena dela esaten ausartzen gara, eta bere konposizioa Metsysen gai berari buruz margotutako oholetik dator (2. ir.). Lan hori, hain zuzen ere, Veneziako Dukeen Jauregian dago, eta seguruenik Schepers egindako kopia zehatza dago (3. ir.) Valentziako Vicente Lassaia bilduman¹⁵. Metsysen ohola eta Schepersi egotzitakoak diren Valentziakoa eta Bilbokoa San Mateoren (27, 28-30) testu ebanjelikoaren arabera dira, ikonografiari begira. Bertan, argi azaltzen dira Jesusen prozesu juridikoa, arantzazko koroapena eta, bere lepotik barre egin dezaten, aginte-makila gisa kanabera jarri ziotenekoak, herriaren aurrera eraman zutenean. *Ecce Homo* izena Pilatok jarri zion, eta Isaiasen hitzak izan ziren izen horren aurrekaria (50, 4-11), aipatu zuenean Mesiasa *Oinazearen gizona* zela.

Bilboko konposizioan, Jesusen oinaze-aurpegiak, sudur finagoak eta gorputzaren mugimendu ematzek Morales dakarkigute gogora, oraindik argiluna Schepersen gai horri buruz egindako beste konposizio batzuetan bezain bizia ez bada ere. Gauza bera gertatzen da Jesus jazartzen duen borroarekin, Morales ez ezik beste batzuk ere badakarzkigulako gogora; esate baterako, Metsysen konposizioa eta Coxciaren lanen batekoa. Nolanahi ere, Pilatoren ereduak ezaugarri pertsonalagoak dituzenez, badirudi erretratua dela. Oso iradokigarria izango litzateke margolaria bera dela pentsatzea, Palominok esandakoaren arabera Schepers margolaria

¹⁵ *Exposición Internacional de Barcelona 1929 : el arte en España*. Bartzelona, 1929, XXXII. aretoa, 32. zenb., Juan de Juanesen lan moduan dago katalogatuta.



6. *Ecce Homo*
Monserrat bilduma, Zaragoza
(Institut Amatller d'Art Hispànic. Arxiu Mas)



7. Tiziano Vecellioren tailerra (1485/1488-1576)
Ecce Homo, 1547
Olioa mihisean. 72 x 58 cm
Musée Condé, Chantilly, Frantzia
Inb. zenb. PE32

eta Zaragozako Auzitegiko epailea izan zela kontuan hartuta. Beraz, baliteke konposizioan bertan Pilatoren ordezkari bera izatea epailea. Horrela izanez gero, Bilboko ohola margolariaren azken urteetan egindakoa izango litzateke, eta badakigu hirurogeita hamasei urte zituela hil zela. Dena dela, autorretratua ez bada, margolariaren komisiio-emailea izan liteke, eta, horrez gain, beste aukera batzuk ere badatozkigu burura: Aragoirekin ahaidetasuna zeukan Luis de Requesens jaunaren erretratua. Bere ama, Estefanía de Requesens, Aragoiko errege-erreginen Antzinako Jauregi Txikiko andrea izan zen Bartzelonan. Luis de Requesens jauna Herbehereetako gobernadorea izan zen, eta, agian, horrexegatik darama makila eskuan (garai horretako Espainiako Historia irudiz hornitu zuten grabatuei esker, badakigu nolakoa zen, eta nolabaiteko antza dauka Bilboko *Ecce Homo*ko Pilatorekin). Azkenik, 1640. urtean titulua jaso zuen San Klemente kondearen, Juan Marín de Villanueva jaunaren, margolana izan liteke¹⁶.

Gaur Pablo Esquertena edo Schepersena dela diogun *Ecce Homo* bilbotarra ez ezik, Zaragozako Pilarrekoa ere izan daiteke berea (4. ir.), gaur arte, zalantzak zalantza, Rolán de Moysena zela esan izan den arren¹⁷. Gorputzaren jarreraren konposizioa (erdi okertuta), aurpegi-eredua (sudur luzea bezain zorrotza), gorputz bi-luziaren anatomia, besoetako giharrak, eskuen marrazkia eta oholen kalitatea kontuan hartuta, badirudi maisu berak egin duela. Era berean, bi lanetako berreroen arteko antzekotasunak ere badaude. Horrez gain, Pilarreko *Ecce Homo*ren ikuslearen belarriaren marrazkia eta Bilboko oholeko berreroarena berdin-berdinak dira. Konposizioek, gainera, euren artean lotura estua badute ere, Bilboko Metsysen ereduaren arabera eginda dago. Biak garai berean egin zituzten.

¹⁶ Alberto eta Arturo García Carraffa. *Enciclopedia heráldica y genealógica hispanoamericana. Diccionario heráldico y genealógico de apellidos españoles y americanos*. Madril, 1920, 53. libk., 251. or.

¹⁷ Zaragoza 1990.



8. Moralesen Eskola
Ecce Homo
Olioa mihisean
Nuestra Señora del Recuerdo ikastetxea, Madril



9. Jan Mostaert (c. 1475-1555/56)
Ecce Homo edo Kristo malkotan
Olioa oholean. 40 x 30 cm
Burgosko Museoa
N.º inv. 221



10. Pablo Esquert (aktibo 1559 eta 1576 bitartean)
Ecce Homo
Olioa mihisean. 120 x 91,5 cm
Bilduma partikularra

Bartzelonako Despujol bildumako *Ecce Homo* lanean antzeko ezaugarriak antzematen ditugunez, margolaria-
ren lana izango litzateke (5. ir.); eta horren kopia berantiarragoa Zaragozako Montserrat bildumako bertsioa
izango litzateke (6. ir.). Guzti-guztietan, Tizianoren oroitzapenak daude, monumentaltasunari dagokionez (7.
ir.).

Era berean, Moralesen eskolakotzat hartu izan den *Ecce Homo* bat ere (8. ir.) Esquerten lana dela esango
nuke. Madrileko Oroitzapenaren Andre Maria ikastetxean dago¹⁸. Ezaugarri berberak ditu, eta Burgosko Mu-
seoko Jan Mostaerten *Ecce Homo* «jantziaren» oroitzapen ikonografiko urruna ere badakarkigu (9. ir.).

Amaitzeko, 1999. urtean, aipatutakoek bezalako ezaugarriak zeuzkan beste *Ecce Homo* bat (10. ir.) agertu zen
Madrileko merkatuan (Moralesen jarraitzailea zen; eta Extremadurako pintorearen lanetik hurbil zegoen).
Gaur egun, Lisboako Museoa dago¹⁹. Nire ustez, Luis de Moralesen miresle moduan (ez jarraitzaile leial
moduan), Pablo Esquerten edo Shepersen lantzat hartutako taldean sartu behar da. Seguruenik, Moralesen
manierismoa, argilun dramatikoak, antzinako flandestarrenganako sentsibilitatea eta Italian ikasitako eredu
batzuen bidezko uztarketa miresten zituen. Pablo Esquertek alderdi «moralestar» horretan lortu zuen estilo
propio eta kalitatekoa.

18 Bartzelonako Institut Amatllerreko agiri-fondoa, Zaragozan eta Bartzelonan aipatutakoak bezalakoak.

19 *Subasta de arte y joyas, Sala Retiro*, Madril, 1999ko azaroa. Oholak 120 x 91,5 cm neurtzen zuen.